



# KRISIA TARTEKO, MERKEALDIA ESKUALDEAN

Eskualdeko dendariak merkealdian «ondo» saltzen ari direla diote, abendura arte salmentak «motel» joan badira ere >6

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Igandea  
2009-01-25

VII.URTEA 1.612.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## MOZORROEN LEHEN JAIA

**LEITZA** Ihoteen lehen egunean hotzari eta euriari aurre egin behar izan zioten leitzarrek; eskean atera ziren

**GAUR** Atsaureak irtengo dira plazara txarangarekin; haur jolasak, bertso jaialdia, musika... ere izango dira 5



Leitzara etorritako tigre hauek ere eskean aritu ziren atzo arratsaldean. NEREA URBIZU



Tea edan zuten Kultur Etxera bertaratu zirenek. ESTI EZEIZA

### Saharako errealitatea gertutik ezagutzeko aukera

**TOLOSA** Tolosaldea Sahararekin elkarteak haima antolatu zuen atzo Kultur Etxean 4

### Haur Txokoarekin «oso gustura» daude Iruran 7



www.mondragon.edu/prest



Munduan zehar lan egiteko prest. MU, aurretik doan unibertsitatea.

## AHTren interesak



### » Uzturretik

Felix Irazustabarrena

Ostiraleko prentsan irakurri ahal izan genuen. EUDEL eta Jaurlaritzak AHTren lanak bultzatzeko hitzarmena sinatu dute «AHTren lanek Gipuzkoako 26 udalerritan izango dute eragina eta horien tokiko interesak defendatzeko» sinatu omen dute Nuria Lopez de Gereñu Ga-

rraio eta Herri Lansailburuak eta Jokin Bildarratz EUDELeko buruak.

Hori bakarrik irakurrita hitzarmen ona izan zitekeela pentsatu beharko genuke alegiarrok. Izan ere gure interesa garbi azalduta dago. Bai Udalak, bai herritarrok erreferendumean esan dugu: ez dugu AHTrik nahi.

2007ko apirilaren leian egin zen gure argaldeketa, etagehien goak «AHTren aldekoa zara?» galderari EZ esan genion. Beraz, gure tokiko interesak defendatzeko bada, hitzarmenak badaki nondik hasi.

Ez dakit hogeita sei udalerrietako guztien gogoa, asmoa, egoe-ra... zein den, baina batzuen bai,

hitz egin dutelako herritarrek, eta horietan tren horren kontrako jarrera izan dute bertakoek. Eta bestetan nik dakidala ez da galdetu.

Ostiralekoan ez nuen euskal prentsan esaldi hau aurkitu, baina erdarazko batetan Jokin Bildarratzek hitzak jasotzen zituen «La sociedad nos pide con su silencio que sigamos con el proyecto». Isiltasuna interpretatzen duenak, batzuk esan nahi dutenari belarriak zabaltzeko interesa izango du noski? Baina orrialde berean Urbinako manifestazioan kolpaturikoen eta horren ondorio salaketak zetozen. Haiek bai isil arazi nahi zituzten, gero isiltasunarekin zer esaten duten jakingo du hitzarmenak.

Badira bederatzita hilabete obrak hasi zirela Ordizia eta Itsasondo arteko tramoan (Itsasondo, isilik geratu ez eta obrak gelditzeko eskatu duen beste herria) Orain ordea, hitzarmenaren ondorio proiektuak udalerritan duen eragina zabaldu eta jakinaraziko dute «helburuak, ezaugarriak eta onurak» Kalterik ez antza. Edo bai?

«Udalerritan afektatutako ingurunea berreskuratu eta erhabilitatzeko laguntzak» eman go omen dituzte. EUDELeko presidentek badakiela dio ANVko hainbat udalerritan ez daudela ados proiektuarekin baina laguntza hauekin onuragarria izango omen da denentzat.

Nik ere onurak trenean ikusten

ditut, baina non bizi garen kontutan hartuko duenean, eskualdeak lotu dituen trenean, errepidea arintzeko balioko duenean eta ez denok ordaindu, inguruak nozitu eta gutxiengo batentzat egindako tren honetan. Merez al du jasan beharko dugun kostuak (ekonomiko, sozial, ingurugiroko...) us-tez izango ditugun onuragatik? Hor dago eztabaida.

Urteak, urte dexente, daramatza AHTren aurkako mugimenduak informazioa eman, eztabaida bultzatu eta galdetuta eskatzen. Informazioa omen da hitzarmenaren helburu, eztabaida ez al da izango Urbinan gertatutakoa, eta beste alorretan hitza eskatzen dutenek ukatzen dute honetan.

### K Komikia

### Gorka Salaberria



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja Talosa (Bellatokia)

## G Gutunak

### Zer ari da gertatzen Gorostidi SAN?

LAB sindikatua sakonki kezkatzen du Gorostidi S.A. enpresan gertatzen ari denak.

Abenduan, enpresa zuzendaritzak E.E.E. bat aurkeztu zuen. Honek ia langileo osoari eragiten zion, enpresaren egungo egoeraren erantzukizuna dutenei ezik. Kasualitate?

Uste dugu, eta ea oker gauden, enpresa zuzendaritzak aurkeztutako espedienteak ez dituela konpontzen, ez konponduko, Gorostidi S.A.k dituen arazo estrukturalak; izan ere hauek, besteak beste, enpresa kudeaketa txar baten ondorio dira, enpresa urteetan jasaten dugun egoera kritikoa batetara eraman duena.

Ezin dugu inola ere ulertu enpresak 2008an milioi askotako galera izatea eta horren erantzule nagusiek sinestarazi nahi izatea E.E.E. batekin, osagarriekin edo

gabe, arazo guztiak konponduko direla; Jaunak, izan gaituzen serrikoa eta ez jokatu langileon etorkizunarekin.

Gorostidin gertatzen ari denak arduradunak ditu, izen-abizenak dituzten arduradunak. Benetan irtenbideak bilatu nahi badituzte eredu izan behar dute. Langilean aurrean, gure sindikatuaren aurrean bai behintzat, beharrezko informazio guztia mahai gainean jartzetik hasi behar dute. Lehenik, aurreko instalakuntzen inguruko pelotazo famatua; ondoren, dibidendu banaketa, azpikontratazioak, ordu extrak; eta, batez ere, bideragarritasun plan serio bat aurkeztu beharko dute. Plan honetan egungo egoerari irtenbidea emateko soluzio errealek eta eraginkorrak aurkeztu beharko dituzte, gutxienez egungo lanpostuak bermatuko dituenak. Hau da abiapuntua, eta ez beste bat.

Ez dugu maite alarmistak izate

tea, baina gure ustez nahiko arazo eta gehiago ditugu egoera gutxiengatik kezkarri batetan gaudela uste izateko. Horren aurrean, eta egoera honetan, Jokin Bildarraz gure alkatearen konpromisoa eta inplikazioa ikusi nahiko genuke. Gustukoa du inaugurazio eta argazkietan ateratzea, Voith-Gorostidi pelotazioaren inaugurazioan, Apatia-Errekako inaugurazioan, ... Proiektuaren beharra defendatzen zuten, besteak beste lanpostuen defentsa arrazoitzat harturik. Orain ikusi nahi dugu, lehen lerroan, bere lagunei erantzukizunak eskatuz.

Eta... gurek ez ditugu ahazten Jokin Bildarraz eta EAJ bere alderdiak egindako beste «gestio» batzuk, pelotazo urbanistikoen truke ehundaka lanpostu galdu ziren «gestioak»: Tolosana-Leitzarar, Salvadora-Papelaria.

#### Mari Mujika.

Tolosaldeko eta Goierriko LABeko arduraduna

## Z Zurea da Hitza eta eztabaida



### Azken atxilotetak

Hau lotsagarria da! atzoko azken eguneko albisteak EREN kontua zen. Langabeziak etengabe egin du gora pasa den urteik eta aurretik ikaragarriko igoera jasango du... Enpresaburuek euren poltsikoak eduki puztu dituzte, euren interesak ezki defendatu dituzte horretarako langileon (benetan aberastasuna sortzen dugun guztion) eskubideak murriztuta, eta orain guri egiten digute eurek eta euren interes finantzioerok (Kapitalismo zikin honek, azken finean) sortu duten «krisis»-aren erantzukizuna (gure soldatekin ordaindu behar dugu guztia).

Eta agintariak, komunikabideak eta iritziz publikoa horri begira egon ordez. Kezkaturik eta gure eskubideen alde egiteko borroka bat antolatzen egon beharrean, atxiloteta zentzugabeak goraiatzaren ari dira. Euskal herritarrek, konpromituak, eredu jakin baten alde lan egiten ari direnak, atxilotu dituzte. lotsagabeki, eta iritziz publi-

koa hori goraiatzena! horrek zuten arazoak konponduko al dituzte, ez al duzue ikusten hori gu guztion, gizaratearen, eskubideen kontrako erasoa dela?

Gizarteak ez badu honekin amaitzeko konpromisorik hartzen, jai dugu!! enpresaburu, agintari, polizi... guztiak argi dute zein den beren estrategia: benetako arazoak, beraiekk sortu dituztenak beste batzuekin estaldu, gure eskubideak murriztu, eta pentsakera bakarra bultzatu. Gure txandada da, zer nahi duguguk?

#### Herritar bat.

### Merkealdia: estatistiken arabera 130 euro gastatu(ko) du pertsona bakoitzak merkealdian. Zure kasuan beteko al da?

■ **Idoia.** «Ez dut horrenbeste gastatuko. Arrazoa? Behar nuen berokia azaroan erosi nuelako (negua oraingoan lehenago hasi da ez?). Eguberrian arropa pixka bat utzi didate, eta ez dut beste eze-

rren beharrik. Beraz, ez dut ezer ere gastatzeko asmorik...».

■ **Miren.** «Ba nik ez dakit zenbat gastatuko dudan edota gastatuko dudan ere oraindik ez naiz eta merkealdietara joan! Eta joatean, ez dut erosteagatik erosiko baizik eta behar dudalako eta gustatu zaidalko! 100? auskalo...».

■ «Ba nik 130 euro gastatu ditut, baina erosi dudana beharrezkoa zen».

■ **Jon.** Merkealdiak erosketak egiteko aprobetxatzen ditut eta bi gal-tza eta beroki bat erosi ditut. 90 euro inguru gastatu ditut. Ez zait gehiegi iruditzen ere, beharrezkoa.

■ **Eider.** Nik ez dut bereziki begir-tzen merkealdia den ala ez. Behar dudanean erosi eta kito. Baina aurt-en gauza xeberre bat pasa zait. Beroki bat ikusi nuen eta gustatu zitzaidan. Pentsatu nuen «merkealdian erosikoet» eta duela pare bat egun dendarra joan eta salduta zegoen. Horregatik iruitzen zait behar denean erosi behar dela, bazpaere ez det gehiagotan ingo.

# D3Mren inguruan

## » Iritzia

Juan Manuel Erasun  
D3Mren eskualdeko bozeramailea

**D**uela 30 urte, Espaniako botereek, euskal nazionalismoaren hainbat sektorearen kolaborazioan, besteak beste, PNVren laguntza zuzenarekin, egungo marko juridiko politiko autonomistatik atzera inposatu zuten. Konstituzioaren, Gernikako estatutuaren eta Nafarroako Foru hobekuntzaren markoa. Zertarako? Proiektu independentista indargabetu eta Euskal Herria desagertatzeko.

Baina, Ezker Abertzalearen eta herrietako hainbat sektore zabal aurrerakoien 30 urteotako borroka, Euskal Herria bizirik mantendu dute, eta, deusezte mekanismoa zena agorrazarazi dute. Honenbestez, Euskal Herritar gehienek beste baldintza batzuetan oinarritutako etorkizuna nahi dute. Hau da: Euskal Herriak duela hitza eta erabakia, edo beste modu batera esanda, Euskal Herriak eskubidea duela libre eta demokratikoki bere etorkizuna erabakitzeko, eta bi Estatuiek hori errespetatu behar dutela. Eta hain zuzen horixe dela gakoak gatazka politikoa eta armatua behin betiko kopontzeko aukera.

30 urte luze hauetan ikusi dugun moduan, euskaldunok ez dugu gure etorkizuna erabakitzeko aukerarik, besteak beste:

- Euskarabigarren mailako hiztuntza izatera kondenatu dute, euskaraz bizitzeko eskubidea ez zaigu bermatzen.

- Ez dugu hezkuntza sistema propioirik, Espania eta Frantziak inposatua baizik.

- Dugun marko autonomiko zatikatzaileak, sistema neoliberala eta kapitalista ezarri du, gutxi batzuen etekin ekonomiko ase ezinetan oinarritua langileen kaltean.

- Hainbat komunikabide itxi eta alderdi politiko eta gazte mugimendua legez kanpo uzten dituen konstituzioaren alaba baita marko autonomikoa.

Eta hori aldatzeko motorra da Ezker Abertzalea. Hain zuzen, horregatik jo du Espaniar Esta-

tua Ezker Abertzalea legez kanporatzea eta errepresio gordinena ezarri «frankismoaren» oinordekoek. Helburua aldaketa politikoaren motorra den independentismoa indargabetzea da. Azkeneko atxilotetak hor kokatu behar dira: (Israalgo sionistak Gazan Palestinarren aurka egiten ari diren gerra sarraskia egin nahi dute Espaniarrek Euskal Herriari). Diferentzia bakarra, tankeak erabili beharrean, (oraingoz), moztorio juridiko poliziala eta militarra erabiltzen ari dira. Hau guztia ez dakusualitatez egiten ari orain. Ez. Hauteskunde autonomikoan aurrean atxilotetak egiteak helburu garbia du: PSOEek eta PNVk Iruzur politikoa berria egitea erabakia baitute, eta, azpitik hitzartuta. Hau da: egungo marko autonomista «makilatuz», botera eta negozio itzelak ziurtatzea eta egun gatazka, bere horretan iraunaraztea. Horretarako, dezagertarazi behar dute sektore independentista. Izan ere, egoera honetan bi aukera posible daude:

- Alde batetik, egungo marko autonomiko zatikatzailean, Espaniak duela azken hitza onartu eta Euskal Herriaren ukazioa mantentzea, egungo esparruaren erreforma hust bat eginez.

- Edo bestetik, benetako aldaketa gauzatzea. Euskal Herriaren aitortza onartu eta proiektu politiko guztiak gauzatu ahal izatea, Independentzia barme.

Eta hain zuzen, horixe da mar-txoaren leko hauteskunde haue-tan jokoena dagoena: Lizarra-Garaz in oinarri ziren aldaketa politikorako baldintzak neutralizatzea edo indartzea. Hau da, itun neoe-statutario baten bidez aldaketaren aukera behingoz lurperatu edo aldaketa bizkortu. Eta dudarik ez da, PSOEek eta PNVk lehenengo hautua egin dutela.

PSOEek eta PNVk herri hau atzera begira jarri nahi dute, iraganera eraman nahi dute, hau da, Lizarra-Garaziren aurreko garaietara, Ajuria-Enearen garaietara. Iruzur politikoa berri bat egin nahi dute. Eta PNVri eskatzen diogu garbi esan dezala PSE-EE-rekin paktatuko duen edozein esan dezala hori hauteskundeak baino lehen.

## H Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95

### TXARO GOITIA VERGARA

(Herenegun hil zen, 62 urte zituela)

Ezer asko ez da ageriko bihotz-begiz ikusirik. Zure alboan bada leku... ez gaude kartzelaturik, gogoan gaituzun aldiro hortxe gaukazularik urte luzeak igaro arren zuregandik aldenturik.



ORERETA  
2009ko  
urtarrilaren 25a

Isabel, Esteban, Ana, Amairu, Nerea, Iosu, Maite, Maddi eta Ekhi.

### TXARO GOITIA

Beti gogoan izango zaitugu



ERRETERIA-ORERETA  
2009ko  
urtarrilaren 25a

Zure lankideak, Matxain eta Biteri

# «Saharako herriaren itxaropena piztea, orain, gure esku ere badago»

**Gizartea** » Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi! elkarteak, urtero bezala janari bilketari ekin dio, gero, hara bidaltzeko.

## ESTI EZEIZA

Kus-Kusa eta haima bezalako hitzak, asko eta askorentzat arrotzak izango dira, are gehiago Saharako herriaren egoera. Hori dela eta, horren urruti baina aldi berean, gertu dagoen errealitate hori gerturatzeko asmoz, hainbat ekitaldi gauzatu zituen atzo Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi! elkarteak.

Kultur Etxean haima bat jarri zuten atzo goizean, eta bertan, hango produktu tipikoak diren tea, datilak eta kus-kusa banatu zuten hurbiltzen zirenen artean. Eki-men hau *Piztu Itxaropena* izeneko kanpainarekin lotuta dago. Izan ere, abendutik hona janaria biltzen ari dira, ondoren Saharara bidaltzeko.

Hilaren 31n amaituko da egitasmoa, eta ordura bitartean, 10.000 kilo produktu biltzea espero dute. Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, azukrea eta konpresak dira aurtien utzi beharrekoak, eta eskualdeko udal-ete eta supermerkatu (Consumer, Eroski eta BM) gehienetan jarri dute horretarako aukera. Oraingoz 2.000 kilo bildu dituzte, baina elkartekoen hitzetan, hasi besterik ez dira egin oraindik. Hala ere, krisi ekonomikoak eragina izango duenaren beldur dira, eta honen aurrean agertzen dute, «azken batean, kilo bat janari 50 zentimo besterik ez direla, eta hori emateko adina herritarren gehiengoak baiduela».

## Egoera oso larria bizi dute

33 urte igaro dira Maroko Mendebaldeko Saharan sartu zenetik, eta Espainiak hau saldu zuenetik. Ordutik, 200.000 saharar Aljeriak utzitako basamortu zati batean bizi dira. Bertako egoera oso gogorra da, lehen mailako beharrak asetzeko ere zailtasunak dituzte, elikagai, ur, medikamentu, osasun



Egitasmoaren baitan, Saharako kultura hurbiltzeko asmotan, haima bat jarri zuten atzo Kultur Etxean. E. EZEIZA

zainketa... eskasia dute. Tokia oso lehorra da eta oso maiz haizea eta hondar ekaitzak izaten dituzte... Ondorioz, bertan bizi diren errefuxiatuek kanpo laguntza behar-beharrezkoa dute egunerokotasunari aurre egiteko. ACNUR, Nazio Batuak, ACHO eta PAM bezalako erakundeek oinarritzko elikagaiak bidaltzen dizkiete baina egoera ezberdinen eraginez beti ez da laguntza hori iristen edota berandu heltzen da. Gainera nahiz eta garaiz itritsi oinarritzkoak betetzeko ere ez da heltzen.

Abenduan kanpamenduan izan ziren elkarteko kideek, janari biltokiak hutsik ikusi zituzten, hori dela eta, aurreko urtean jasotako kopurua gainditu nahi dute. Iaz 400 tona lortu ziren, Tolosaldean 10.000 kilo. Aurtengoan ere emaitza hori lortzea espero dute, beraz, elkarteko kideek. Oraingoa *Piztu itxaropena lelopean* burutzen duten bosgarren elkartasun kanpainara da.



Sahararen inguruko informazioa banatu zuten kalean. E. EZEIZA

## 22-10 galdu dute eskualdekoek Olaizola eta Mendizabalen aurkakoan

**Pilota** » Gaizki eta kolorerik gabe hasi ziren jokatzeko Olaizola eta Barriola; ligaxkakoa lidertza galdu dute.

## ERREDAKZIOA

Atzoko partidaren ostean, VII. Binarako Txapelketaren ligaxkakoa nagusitasuna galdu zuten Abel Barriolak eta Mikel Olaizabalek. Vellido Igar Pilotalekuan 22-10 galdu zuten Aimar Olaizola eta Oier Mendizabalek aurka.

Norgehiagokaren hasieratik hotz hasi ziren eskualdeko bi pilotariak. Partida azkarra izan zen, eta kolorerik gabea. Erraz irabazi zuten Goizuetarrak eta Zaldibiarak. Aurrealdean, Olaizola Olaizolari aurre egiten saiatu zen, baina handi geratu zitzaion, eta ezin izan zuten. Barriolak berriz, ongi aritu bazen ere, ez zuen lortu Mendizabali gailentzea. Aipatu beharra dago, Olaizola Gonzelezen ordeztu zela atzokoan.

## Bertan behera geratu ziren atzoko Irurako trinketeko partidak

## ERREDAKZIOA

Zikloia zela-eta Trinketeko Elkarrean Arteko Gipuzkoako Txapelketaren baitan atzo Irurako Trinketean jokatu behar ziren sei partidak bertan behera geratu ziren. Bertan, besteak beste, Behar-Zanako pilotariak jokatu behar zuten.

Irurakoekin batera, Amasako pilotalekukoak ere jokatzeara erabaki zuten. Antolatzaileen esanetan, «errepidean izan zitezkeen arazoak zirela eta, ez egitea erabaki» zuten. Honenbestez, oraindik ez dute zehaztu, noiz jokatuko diren atzoko norgehiagokak.

txokoa

## 2 sarrera pare

zozketan, deitu eta eskuratu!


Uzturpe Ikastolaren Kultur Astearen baitan

**Sua**

ikusbizina  
Alurr dantza taldearen eskutik

Urtarrilak 30 • ostirala • 22:00etan • Ibarrako Belabieta Kiroldegian

HITZAren harpidedunentzat abantailak



Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: 943 65 56 95

Larunbateko eskea herrian izaten da Leitzaan, eta mozorrotutakoak hiru taldetan banatzen dira; etxeetan eta txokoetan zain daudenek ere giro ederra izaten dute.

## Eskea baino, festa alaia

NEREA URBIZU

Leitzaiko ihoteak hasi dira. Atzo mozorrotutako herri-tarrek eskea egiten ohi dute herrian zehar, Aurrera elkartean bazkaldu ondoren. 80 bat lagun elkartu ziren bertan eta ondoren, hasi ziren herrian sakabanatzen eskean hasteko. Piratak, tigreak... baziren kaleetan zehar. Ohi bezala, hiru zonaldetan banatu ziren herri-tarrak, batzuk trikitilariekin, beste batzuk gaiteroekin eta beste batzuk (Alde Zaharrean) txistulari-ekin.


Haizetara baretu zen arratsalde-rako, baina euria egin zuen noiz-behinka. Hala ere, mozorrotuek euren lana egiten jarraitu zuten, ohiturei jarraituz: «Elurra, haizea, beroa edo izotza. Ez digu axola zer eginen duen: guk beti egin dugu es-kea».

Gitarra, panderoa eta trikitixa-rekin talde bat ere aritu zen kaleetan jotzen eta entzuleak alaizten. «Urtero egiten dugu hau, baina eskean ez gara aritzen. Duela 15-20 urte hasi ginen lagun talde bat. Larunbatean bazkaltzeko elkartzan hasi ginen gure txoko batean eta gero eta jende gehiago elkartzan ginenez, taberna batean hasi ginen bazkaltzen. Ondoren, kaleetan ibili eta gure txokora joaten gara». Bertan, txoko honetan eskean aritzen diren txistulari taldekoei merienda ateratzen diete gero.

Talde lagun hau txapela eta Lanzko Inauteriak gogoratzen duen janzkerarekin ateratzen hasi ziren. «Gero eta jende gehiago hasi zen afaltzeko biltzen larunbatetan,

eta hala, larunbatean ere giroa izaten da. Eguneko festa egiten dugu guk, gorputzak irauan arte». Lehen igandez egiten zen eskea, eta astelehenetan baserrietan. «Asteleheneko eskea zoragarria izaten da, jokatuko modukoa. 09:00etan hasi eta 21:00ak arte aritzen gara».

Hanzen, txistularien zain, duela 15-20 urte inguru elkartzan hasi zen lagun taldea euren txokoan. Altxatekoa, Amasako artista trikitixarekin... leitzarrak gipuzkoar ugariz inguratuta, egia esan -Donostia, Eibar, Amasa...-. Abesten eta merienda hartzen sutondoan zeuden, kafe goxoa hartu bitartean. «Guztira, beste 15 bat lagun etortzen dira».



Goian, lagun taldea txistularien zain. Beheran, txistulariak kalejiran. N.U.

### » IHOTEETAKO EGITARAUA

#### Ilbeltzak 25, igandea

- **12:00.** Atsaurek Incansables txarangarekin Plazatik aterako dira. Gurdiak industrialdetik.
- **12:00.** Txu Txu trenaren herrian.
- **14:30.** Atsauren herri bazkaria.
- **16:00.** Txu Txu trenaren herrian.
- **18:00.** Incansables txarangarekin kalejira eskoletatik.
- **18:30.** IKA euskaltegiak eta Bertso Eskolak antolatutako Bertso Jaialdia zinean dohan. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Julio Soto eta Diego Riaño. Gai-jartzailea: Jainkoa.
- **19:00.** Laiotz taldea Karrapen.
- **23:30.** Laiotz taldea Karrapen.

- **Ondoren.** Incansables txaranga.

#### Ilbeltzak 26, astelehena

- **09:00.** Baserrietako eskea: Gorritzaran, Arkixkil, Sakulu eta Errekara puske biltzea, herriko txistulari eta Incansables-ekin.
- **16:00.** Puzgarriak egongo dira Amazabal pilotalekuan.
- **19:00.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **23:30.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **Ondoren.** Incansables txarangaren musika.

#### Ilbeltzak 27, asteartea

- **09:30.** Baserrietako eskea: Erasote auzora.

- **11:30.** Umeentzat ekitaldia: *Musika tresnen fabrika* Sointek Produzioak eskutik.

- **14:30.** Aurrera Elkartean bazkaria.
- **16:30.** Ume eta gaztetxoek kalejira plazatik irtenda. Heurrekin Incansables txarangaren musika edukiko dute.
- **Ondoren.** Txokolata, buru handiak, musika plazan eta goxokiak banatuko dira.
- **18:30.** Atsauren kalejira.
- **19:00.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **23:30.** Gau-Bela taldea Karrapen.
- **Ondoren.** Incansables Txaranga.
- **03:00.** Ihotei amaiera emateko DJ Guti.

## Haize zakarrak eragina izan du erosleengan Tolosako Azokan

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka egunean haizea izan zen nagusi Tolosan. Ostiralean emandako abisuek eragina izan zuten jendearengan, eta nabari zen goiza ondo sartu arte ez zirela kalera atera. Salmentak eguerdia aldera hasi ziren berotzen eta orokorrean ez zen izan egunik onena salmentari begiratzuz.

Eskaintza ordea ez zen makala izan. Saltzaileak ez ziren haizearen beldur izan, eta ez zituen etxean utzi. Neguko barazki asko ikusi izan ahal genuen, fruta dexente, batez ere errezil sagarrak, eta nabarmendu zen gazta berriaren erakargarritasuna.

Berdura plazan ere izan ziren ohizko postuak, eta gara garrantzitsu batean daude baratzarako landareen postuak. Udaberriara begira daude dagoeneko, eta garai horretako landareak baratzan sartzeko unea iritzi da.

### » ATZOKO AZOKA

#### BERDURA

PLAZA	Merk.	Gares.
Kalendula	2,50	-
Salbia	1,00	1,20
Erromero	4,00	6,00

#### BERTAKO PRODUKTUAK

Gardua	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Lolota	1,00	-
Gazta berria	17,00	-
Arrautzak	1,10	2,40

#### PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Ogia (800 gr)	2,55	-
Zerba	2,00	-
Arbi morea	4,00	-

## Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Zainketak.** Lan bila. Zegama. Gauetan zainketak egiteko prest. Euskalduna, esperientzia eta kotxea. 646 621 677.

#### SALGAI

■ **Etxea.** Intzako herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzeko, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerakoa. 628 03 07 27, 646 111 485 eta 609 21 83 41. [estanga@wanadoo.es](mailto:estanga@wanadoo.es)

■ **Ukenduak.** Ukenduak salgai. Fistula edota erredura arazoak daudenetarako, zirujua gabe. Dena naturala. Deitu konpromisorik gabe: 618 628 311. [garitxu70@hotmail.com](mailto:garitxu70@hotmail.com)

2-16 urte

bi urteko gela • jarduera • ikastola

# uzturpe

herrian hazi eta hezi

izanaldiak • kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen

dei lezaguzu eta bisita antolatuko dugu

matxularie ez da obar guri 21x 131a

09:00era - 12:30era | 14:30etik - 18:00era

Uzturpe 2, 20090 Bera | Tel. 941 811 789 | Fax 941 811 702 | [bera@uzturpe.net](mailto:bera@uzturpe.net) | [www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)

## TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK kontratatzeko asmoa du Inauterietarako (nagusiki larunbata, igandea, astelehena eta asteartea).

**BETEBEHARRAK:**

- 16 urte beteta izatea.
- Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo balioidea den ikasketa titulua edukitzea.
- Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko arazo psikiko edo fisikorik ez edukitzea.
- Euskara jakitea, lanpostuaren eginkizunak zuzen betetzeko beharrezkoa den mailan.

- Baldintza hau egiaztatzeko, bidezko den azterketa egingo zaie izangai, Tolosako Udaltzain, 2009ko otsailaren 9an, goizeko 9etan. Froga. Udaltzainaren teknikoek egingo dute (ez HAEEK).

- Azterketa horrek ez du balio ofizialik izango hizkuntz eskakizuna egiaztatze aldera; lanpostu honetako aukeraketa-prozesuan parte hartzeko baino ez du balio izango.

**BALORATUKO DIRA:**

- Lanpostuaren eginbeharrak zuzen zuzen ikastaroko.
- Larrialdiko edo Babes Zibileko zerbitzuaren esperientzia izatea.
- Kirol gertaera, ikuskizun publiko edo kontzentrazio handietako antolamenduan parte hartu izana.
- Beste edozein lan esperientzia lanpostuarekin erlazioa duena elakritzeta baten bidez neurtu ahal izango da.

Interesaturik dagoena Tolosako Udaltzainaren Informazioa eta Erregistroan aurkituko du eskaera egiteko orria (Plaza Zaharra 6-A). Eskaerak 2009ko otsailaren 3ko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Eskaerarekin batera aurkeztu behar ditu betebeharrak a) eta b) apartatuak agiriaren fotokopiatu (NANA eta titulua), eta eskaeran jartzen dituen balorakizunenak.

Kontuan harturik egun hauen izaera berezia, salbuespen moduan, trafikoko laguntzaile ordainsariak, gutxi gora behera, 500 eurokoak izango dira lau lanegunengatik.

Tolosan, 2009ko urtarrilaren 20an - ALKATEA - JOKIN BILDARRATZ SORRON

# Krisiaren merkealdia?



«Krisia dela eta, erosleari gizarteak berak eta komunikabideek sartu dioten beldurra» omen da erruduna, baina dendariak, oro har, ez dute aurreko urteetan bezala saldu; merkealdian dute orain esperantza.

## » INKESTA

### 1. Asmoa al duzu merkealdian zerbait erosteko? 2. Uste duzu krisiaren eragina izan (go) duela?



«Ez dut begiratzen merkealdia den ala ez»

**Ione Goya**  
VILLABONA

1. Oraindik ez dut ezer erosi, tokatzen denean baino ez dut erosten, ez dut begiratzen merkealdia den ala ez. Hori bai, tokatzen bada hobeto.
2. Oraindik ez dela nabaritu iruditzen zait, baina hori dendariak jakingo dute.



«Hau kate bat da, krisia guztiei ailegatuko zaigu»

**Jabier Sarasola**  
VILLABONA

1. Nik beti behar dudanean erosten dut, merkealdia izan ala ez izan.
2. Oraindik ez zaigu krisia ailegatu, nire kasuaz ari naiz, eta birtute horretan, erosi egin beharko dugu, besteie ere ez faltatzeko, ezta? Hau kate bat da eta guztiei ailegatuko zaigu.



«Aurten ez dut beharrik izan eta ez dut erosi»

**Elena Arozena Zabala**  
TOLOSA

1. Egia esan, normalean itxaroten dut merkealdia iristea eta zerozer erosi izan dut, baina aurten ez dut beharrik ikusi eta ez dut ezer erosi.
2. Krisia edo beldurra edo... Bai, uste dut nabaritzen dela krisia dendatan.

## ERREDAKZIOA

**P** agotsak omen daude orain denda guztietan. Orain arte erosi ez ditugunak merkeago eskuratzeko aukera pargabea dago orain. Horrela diote, behintzat, erakusleihu guztietan beherapenak iragartzen dituzten kartelek. Aurten inoiz baino lehenago heldu dira, gainera. Eta bertan mantenduko dituzte otsailaren bukaerara arte.

Baina benetan jendeak erosten al du? «Aurten inoiz baino gehiago itxaron du jendeak merkealdi sasoiara. Beherapenik egon ez den garai nahiko motela izan da», argitzen dute Tolosako dendariak. Honen erruduna, euren ustez, ez da krisia, «krisiarekiko sartu duguten beldurra baizik, gizarteak berak eta komunikabideek».

Dendariak «esperantza» dute merkealdian aurrez saldu ez dituztenak saltzeko. Askotan albiste gutxiak minutuak betetzeko erabiltzen dituzten estatistika horien inguruko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, biztanle bakoitzak 130 euro gastatuko ditu merkealdian.

### Merkealdian, salmentak «ondo doaz»

Orain arte erosketak sasoi honetan ondo doaz eta dendariak gustura azaldu dira. «Aurreko urteetan baino eskaintza gehiago dago oraindik, bai tamaina aldetik bai, baita kolore eta estilo aldetik ere; horrela erosleak aukera handiagoa du etxera zerbait eramateko». Hala ere, oraindik goiz da datuak biltzeko, otsaila osoa egongo baita merkealdia dendatan.

### Alor guztietara zabaltzen den gaitza

Badirudi krisiarekiko beldu hori alor guztietara zabaldu dela. Dendariak, tabernariak... Oro har zerbitzuetako langileek eta, batik batik, bigarren sektoreko langileek pairatuko dute.

«Nik denda bat daukat eta nabaritu dut beldur hori»

**Milagros Azpeitia (Tolosa)**  
TOLOSA

1. Nik oro har aprobetxatzen ditut beherapenak.
2. Ni neu dendaria naiz eta aurten nabaritzen ari gara krisiarekiko beldur hori, abendura arte oso motel joan dira salmentak.

«Dendariak diotenez, Tolosa hilda dago»

**Goreti Iribar (Tolosa)**  
TOLOSA

1. Denbora gehiegi ez dut izan aurten baina bestela aprobetxatu izan dut merkealdia.
2. Orainxe dendari batek esan dit Tolosa oso hilda dagoela, ez dakit...

## Etzi, Alegiako Udalak deituta zubiaren inguruko bilera egingo dute

### ERREDAKZIOA

Etzi, 19:00etan udaletxean bilera batera deitu du Udalak. Deialdia herritar guztientzat da, norberak bere iritzia emateko. Hau da Udalak planteatuko duen gai: Tontokale eta Larraitz auzoa lotzen dituen zubian hainbat lan egiten hasi dira eta gai horri buruzko eztabaida herritarren artean zabaldu nahi du Udalak.

Oraingo zurrak da espaloian adaketak egingo direla oinezkoentzat egokiagoa eta erosoagoa izan dadin (irigarritasunaren aldetik hobetzeko), baina hortik aurrera erabakitze dago zubiari itxura berria eman ala orain artekoa mantentzea eta abar. Beraz, herritarrek zer iritzia duten jakin nahi dute: itxuraldatu bai ala ez...

### Zubian autoak aparkatuta

Zer esana ematen ari den arazo bat planteatzea da asmoa: ohikoa da zubian autoak aparkatuta ikustea, errail bat oztopatuz. Horrez gain, «momentu honetan martxan dauden kaleko lanen inguruansortzen diren beste galdera eta proposamenei ere tokia egingo diegu».

## Laburrak

### Udalaren Osoko Bilkura izango da etzi iluntzean

**TOLOSA** ● Etzi 19:30ean Udalaren Osoko Bilkura izango da. Besteak beste, ondorengo gaiak aztertuko dira: 2009ko Ordenantza fiskalen aldaketa; Obra eta Hirigintza Departamentuetako egitura eta organigrama eta udal departamentuetako buru eta arduradunak izendatzeko baldintzak aldatzea; Tolosako Udaleko 2009 urterako lanpostuen zerrenda onartzea eta Palestinaren Aldeko mozioa.

### Fresagailu eta Officeko teknikari ikastaroak LHn

**TOLOSA** ● Tolosaldea Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak Fresagailua Fagor eta Officeko Teknikari ikastaroak antolatuko ditu otsailaren 11 eta 12an. Oraindik izena eman daiteke 943 65 11 47ra deituta.

### Gaur, azken atxilotetak salatzeko elkarretaratzea

**TOLOSA** ● Gaur ezker abertzaleak deituta, Trianguloan 19:00etan elkarretaratzea egingo dute. Bertan, azken egunetan izan diren atxilotetak eta «errepresioa orokorrean» salatuko dituzte, *Demokrazia Euskal Herriarentzat* lelopean.



Liburutegiaren gela batean dago Haur Txokoa. Bertan begirale Inetan aritzen direnek aldiro jolasak antolatzen dituzte. I. GARCIA

# Haur eta gurasoen topaleku

**Irura**» Liburutegia egokitu dute eta bertan Haur Txoko berria eta gurasoentzako gela jarri dituzte.

IMANOL GARCIA

Pasa den urritik aurrera zabalik dute Iruran Haur Txoko berria. Liburutegian dagoen zerbitzueta-bat da. Alex Lasa giza-kultur dinamizatzailea eta Aitziber Pifheiro gizar-te dinamizatzailea ardura-zen dira zerbitzuaz.

Liburutegiko goiko solairuan gela bakarra dago eta bertan daude liburuak, batez ere eleberriak, eta ordenagailu bat interneten nabigatzeko. Beheko solairuan dago harrera eta bi gela. Sartu eta ezkerretara dagoena gurasoentzako egongela da. Gurasoek haur txikiekin egoteko eta merienda emateko aukera dute. Bertan liburuak ere badaude, historia eta geografiako liburuak, esaterako.

Eskuineko gelan dago Haur Txokoa. Lehen leku hori medikuaren kontsulta zen. Hori dena bota da eta gela bakarra egin dute. 2 eta 11 urte bitarteko haurrentzat da, haurrak bakarrik egoten baitira bertan, gurasorik gabe. Lehen ludoteka edo haur txokoa zena Ikastolarekin partekatzen zuten, goizean Ikastolak erabiltzen zuten eta arratsaldean haur txoko bezala funtzionatzen zuten. Egun, egindako berrikuntzak eta gero, Ikastolak goiko solairuan dauden beste bi gela erabiltzen ditu Haur Hezkun-



Haurrek hainbat jostailu dituzte jolasean aritzeko. I. GARCIA

## » HAUR TXOKOKO ARAUK

- 2 urtetik 11 urte arteko haurrak jolas dezakete. Zaharragoek begiraleei eskatuko diete baimena eta jende gutxi dagoenean utziko diete. Txikiagoak guraso edo zaindarekin egongo dira eta hauek ere haur gutxi badaude bakarrik izango dira ondo hartuak.
- Etxetik jostailuak ekartzen dituenak denei utziko dizkie.
- Ezin dira ekarri hiltzeko jostailuak: pistolak, eskupeta, metrailetak, labanak, ezpatak eta antzekoak.

- Ezin da jan edo edan Haur Txokoa.
- Ezin dira jostailuak jolasteko gelatik atera.
- Ezin zaio inori jo edo bultza.
- Ohe-elastikoan ibiltzeko oinetakoak kendu behar dira.
- Txanda eskatu behar da jolasteko billarrean, futbolearen, ping pongen eta ordenagailua erabiltzeko.
- Haur Txokoko ordenagailua 8 urtetik 11 urte artekoak bakarrik erabili dezakete. Ordenagailua

erabili nahi duten nagusiagoek liburutegian dagoena erabili behar dute.

- Jostailu bat erabiltzekoan jaso egin behar da beste bat hartu aurretik.
- Erabiltzeko liburuak xaxa handian utzi behar dira.
- Liburuak etxera eramateko 18:45ak arte dago aukera izena hartzeko.
- Begiraleek Haur Txokoko arauak hautsi dituenak kalera bota dezake.

tzako ikasleentzako. Liburutegi osoak ordutegi berdina du, astelehenetik ostiralera 17:00etatik 19:00etara.

## Gurasoak gustura

Haurrekin joaten den gurasoetako bat Cecilia Maiza da. Egutero eramaten du 5 urteko haurra Haur Txokora. «Eguraldi txarra egiten badu leku egokia da», dio, «bai haurrentzako eta baita gurasoentzako ere». Maizak «ondo» deritzo zerbitzua egokitu izana. «Haurrak jolasten aritzen dira beraien lagunekin». Hori bai, eguraldi ona egiten badu, parkea erabiltzen dute. «Haur Txokoa bigarren errekurtsio bezala erabiltzen dugu», zehazten du.

Hain justu, horixe izan zen Haur Txokoa berria egokitzearen arrazoia, Alex Lasak azaltzen duenez: «Ikusten da gero eta haur gehiago daudela eta hauek dira normalean haur parkean egoten direnak, bere gurasoekin. Eguraldi txarra zegoenean aukera bakarretakoa elizaren arkupeetan sartzea zen edo lehengo ludotekara. Baina txikia zen eta deserosoa eta horregatik egokitu genuen».

## GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA DONOSTIAN

Otsailaren 2tik martxoaren 13ra  
Ikastaroaren prezioa: 305 €  
Izena emateko  
(urtarrilaren 29ra arte):  
943 327 172  
(GIPUZKOAKO AEK)

IZAN IRAKASLE AEKni!





8°  
4°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Arco Iris-Ortzadar elkar-  
tearen urteko asanblada  
10:00etan lehen deialdia eta  
10:30ean bigarren deialdia.

### Jaiak

■ **Leitza.** Ihoteak: 12:00etan  
Atsaurek Plazatik, gurdiak ohiko  
lekutik, industrialdetik; 12:00etan  
Txu Txu tren; 14:30ean Atsauren  
bazkaria; 16:00etan Txu Txu tren;  
18:00etan Incansablesekin ka-  
lejira; 18:30ean Bertso Jaialdia zi-  
nean doan; 19:00etan eta  
23:30ean Laiotz taldea.

### Zinema

■ **Villabona.** *Un gran día para ellas*,  
Gurean, 19:30ean.  
■ **Tolosa.** *Misión en Mocland*  
17:00etan Leidorren; *Un gran día*  
*para ellas*, 19:30ean. *Gomorra*,  
22:00etan eta bihar 20:30ean  
(ikuslearen eguna).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

#### Gaur

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin  
Jose Iraola, 10. 943 672438.  
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia,  
5. 112.  
■ **Irurzun.** Mutiloa, A.M. San  
Martin, 5. 112.

#### Bihar

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagu-  
sia, 7. 943 670648.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36.  
112.

HITZAK ez du bere gain hartzen  
egunkariaren adierazitako esanen  
eta iriztien erantzunkizunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Joseba Rojas Gracial (Alegia).**  
Bihar 4 urte. Zorionak familia  
guztiaren partetik.



Bidaiak, afariak, estetika zentroetan jarduerak, kirol jantziak... Denetik jaso ahal izango dute hilero 902 820 240ra deitzen dutenek. HITZA

2009ko hilabete guztietako azken asteetan, zozketa bereziak  
gingo ditu Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZAK harpidedunen artean

# Jaso, eta gehiago eman

### ERREDAKZIOA

**S**ari asko eman ditu TOLO-  
SALDEKO ETA LEITZALDEKO  
HITZAK sortu zenetik. Kul-  
tur ekitaldiatarako sarrerak, esate-  
rako, kirol jarduerak ikusteko sa-  
rrekerak, edo bestelako sariak izan  
dira. Tarteka ere sari handiagoak  
banatu dira: nekazturismoak, bi-  
daiak, afariak... Harpidedun izate-  
aren abantailak ziren horiek guz-  
tiak. Bada 2009an, konpromiso  
hori indartu nahi izan du HITZAK,  
eta tarteka harpidedunen artean  
banatzen ziren sari horiek, hilabe-  
tero banatuko dira.

Harpidedunen aldetik asko ja-  
sotzen baitu HITZAK. Urteko kuota

fidel ordaintzearekin batera, es-  
kualdeko euskarazko egunkaria-  
ren oinarri baitira harpidedunak,  
oinarri hitzaren zentzurik zabale-  
nean. Askot jasotzen du harpidedu-  
netatik HITZAK, eta horregatik,  
2009an gehiago emateko prest  
dago.

### Ohikoak, eta berriak

Bide horretan, ohikoak diren zoz-  
ketez gain, zozketa berezietan par-  
te hartu ahal izango dute HITZA-  
ren harpidedunak 2009an: kirol  
materiala, itsaskiak, afariak,  
nekazturismoak, jantziak, bi-  
daiak...

2009an harpidedunek erakutsi-

ko duten fidelotasuna eta konpro-  
misoa saritzeko ekimena da, eta  
egunero publikatzen diren HITZAK  
jarriko dute abian; eskualde bakoit-  
zeko HITZAK tokian tokiko den-  
dek, jartetxeek edo bestelako zerbit-  
tzu erakundeek erraztu dituzten  
sari sortak zozkatuko ditu.

### Hilabete bukaeran

2009ko hilabete bakoitzeko azken  
asteetan egingo dira HITZAREN har-  
pidedunen fidelotasuna saritzeko  
zozketa berezi hauek. Hala, hil  
bakoitzeko azken asteartean, aste-  
azkenetan eta ostegunetan, Hitza  
bakoitzean hilabete horretan zer  
zozkatuko den agertuko da. Har-

## T Telefonoa

**902 820 240**

■ **Zer.** HITZAREN hilabete bukaer-  
rako zozketa bereziak.  
■ **Noiz deitu.** 2009ko hilabete  
bakoitzeko azken asteartean, aste-  
azkenetan eta ostegunetan.  
■ **Ordutegia.** 09:00-17:00.  
■ **Irabazleak.** Hilabete bakoitzeko  
azken larunbatean, Tolosaldeko  
eta Leizaldeko HITZAN.

tara, saridunen izenak hileko az-  
ken larunbatean publikatuko dira.  
Parte hartu nahi duten harpidedu-  
nek telefonoz dei bat besterik ez  
dute egin behar: 902 820 240ra  
deituz gero, zuzenean parte hartu-  
ko du harpidedunak hilabeteko  
zozketan. Harpidedun kodea bes-  
terik ez dute eman behar izango.



### Urte askoan!

**Izaskun Sarasola.** Astearteko  
partez. Etxekoak eta Nahiaren  
partetik.



### Urte askoan!

**June (Berrobi).** Zorionak gure  
etxeko *Moxolari*. Ondo-ondo pasa  
zure seigarren urtebetetzean.



### Urte askoan!

**Ainhitze.**  
Gaur 7 urte. Muxu potoloak  
etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...